



**BBUP-REN BULEGOETAKO KLIMATIZAZIO-EKIPOEN MANTENTZE-LANEN ZERBITZUA
KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA.
ESPEDIENTE-ZK.: 3298**

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Eder Murua Cuesta
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak egiteko telefono-zk.: 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA.

1.- Kontratuaren xedea: Kontratu honen xedea honako hau izango da: BBUPren BULEGOETAKO KLIMATIZAZIO-EKIPOEN MANTENTZE-LANEN ZERBITZUA, baldintza tekniko berezien pleguan jasotako xehetasunen arabera. 2.- Bete beharreko premiak: BBUPk kudeatzen dituen bulegoetako klimatizazio-instalazioek funtzionatuko dutela bermatzeko mantentze-lanak behar dituzte. Funtzionaltasuna alderdi ergonomikora (enplegatuen erosotasun termikoa) eta alderdi teknikora iristen da (ordenagailu-gelek, zerbitzariak eta abarrek tenperatura egokia behar dute behar bezala funtzionatzeko). Bestalde, instalazio horiek araudi baten mende daude, eta araudi horrek lege-mailako mantentze-lanak egitera behartzen du. Lan horiek, osorik edo zati batean, administrazio eskudunak baimendutako enpresek egin behar dituzte. BBUPren BULEGOETAKO KLIMATIZAZIO-EKIPOEN MANTENTZE-LANEN ZERBITZUA kontratatzea beharrezkoa da adierazitako beharrak betetzen direla bermatzeko. 3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Kontratuaren ezaugarriak ez dute aukerarik ematen lotetan banatzeko. Girotzeko instalazioak osatzen dituzten makinen eta osagaien birjarpen teknikoa zuzenean lotuta dago horiek instalatzeko eta abian jartzeko zerbitzuari, baita egindako lanen bermeari ere.
4.- CPV: CPV kodea: 50720000-8 Deskribapena: Sorgailuen konponketa eta berokuntza zentralaren mantentze-lanak
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI



B.- KONTRATUAREN XEDEA.

☒ EZ

Onartzeko baldintzak eta aldatu edo aukeratu daitezkeen elementuak:

6.-Izaera juridikoa

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua
(BEZik gabe)

HIRUREHUN ETA BERROGEITA HAMAHIRU
MILA ETA SEIEHUN ETA HIRUROGEITA
ZORTZI EURO ETA HAMAR ZENTIMO
(353.668,10 €)

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: ZAZPIEHUN ETA ZAZPI MILA HIRUREHUN ETA
HOGEITA HAMASEI EURO ETA HOGEI ZENTIMO (707.336,20 €)

Loteak:

☐ BAI

☒ EZ

3.-Prezioa zehazteko sistema:

☐ Oroharreko prezioa

☒ Aleko prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren
aurrekontu-aplikazioa:

2026. urtea----- 212.01.169.31. partida ----- 14.736,17 €

2027. urtea----- 212.01.169.31. partida ----- 176.834,05 €

2028. urtea----- 212.01.169.31. partida ----- 162.097,88 €

5.-Prezioak berrikustea:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: BBUPko organo-eskudunak onetsitako hileroko ziurtagiriaren bidez

8.-Konturako ordainketak: Ez da aplikatu behar

D.-KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa: BI (2) URTE

2.- Epe partzialak.

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena

☒ BAI ☐ EZ

URTE BATEKO (1) BI (2) LUZAPEN

4.- Berme-epea: URTE (1) BAT gutxienez

5.- Kontratua gauzatzeko tokia: BBUPren hainbat instalazio



D.-KONTRATUAREN EPEA

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:

F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin:

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Lizitatzailleek nahitaez egiaztatu beharko dute beren kaudimena, eta hala egin ezean prozesutik kanporatuak izango dira. Kaudimenak bat etorri beharko du kontratuaren xedearen mota edo izaera bereko lanekin, eta hori egiaztatzeko honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Kontratuaren xedearen antzekoak diren obren zerrenda, azken hiru urteetan egindakoak. Egindako zerbitzuak frogatzeko, kontratatzaileak emandako edo ikus-onetsitako ziurtagiriak aurkeztu beharko dira. Ziurtagiri horietan obren deskribapena, noiz egin ziren eta dagozkien zenbatekoak agertuko dira. Baldintza hau bete beharko da:
 - Gutxieneko baldintza izango da egikaritze handieneko urtean metatutako urteko zenbatekoa kontratuaren balio zenbatetsiaren % 70 edo handiagoa izatea, edo urteko batezbestekoarena, hori kontratuaren balio zenbatetsia (123.783,83) baino txikiagoa bada.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimen tekniko eta profesionalean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietan. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

Derrigorrezkoa izango da jarraian jasotako alderdiak egiaztatzea, eta hala ez egiteak lizitatzaillea prozeduratik kanpo uztea ekarriko du:

Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuaren 2006ko apirilaren 10eko Aginduan eskatutako betekizunak betetzen direla ez egiaztatzea. Agindu horren bidez, industria-segurtasunaren arloan norbanakoaren prestakuntzako txartelak eta enpresa baimenduak arautzen dituen martxoaren 14ko 63/2006 Dekretua garatzen da. Hori egiaztatzeko, Industriako lurralde-ordezkaritza eskudunak emandako Eraikinetako Instalazio Termikoak Instalatzeko eta Mantentzeko Enpresa Baimenduaren Ziurtagiria aurkeztu beharko da. Ziurtagiri horrek indarrean egon beharko du kontratua indarrean dagoen bitartean.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez



H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK

- 1.- 1. gutun-azala: erantzukizunpeko adierazpena.
- 2.- 2. gutun-azala: balio-judizioen arabera irizpideen dokumentuak.
- 3.- 3. gutun-azala: automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

Lizitatzailleek kontratua egikaritzeko proposamen tekniko bat aurkeztu beharko dute, adierazitako puntu guztiak barne, jarraian zehazten den ordenan:

1. Egingo diren lanen irismena.
 - Kontratuaren beharrei buruz egiaztatutako ezagutza-maila.
 - Proposatutako prebentziozko mantentze-lanen sortak, gutxienez eskatutako eragiketak sartuta.
 - Aurreikusitako lan karga (prebentiboa, zuzentzailea, etab.) eta hori egiteko proposatutako giza indarra.
 - Lan-kargaren eta giza indarraren justifikazio xehatua, oporrak, baimenak, lan-absentismoa eta abar kontuan hartuta.
 - Instalazioan hobekuntzak proposatzea
2. Egingo diren lanak egikaritzeko proposatutako programazioa.
 - Egin beharreko lanak aurreikusitako epean zer-nola banatuko diren, horietako bakoitzerako aurreikusitako lan-kargaren arabera.
 - Epean zehar egingo diren lanen banaketa, kontuan hartuta kokapenak sakabanatuta daudela.
3. Arriskuen prebentziorako, ingurumenerako eta lan-kalitaterako kontrol-sistemak.
 - Lizitatzaillearen arriskuen prebentzioarekin, ingurumenarekin eta kalitatearekin lotutako ziurtagiriak eta homologazioak gehitzea.
 - BBUPren mantentze-lanetarako berariazko prestakuntza-plana gehitzea.
 - Dokumentuak eta eragiketak kudeatzeko sistema mantentze-zerbitzurako (GMAO).
4. Kontratua egikaritzeko antolamendu-egitura eta lantaldea.
 - Langile-organigrama eta -zerrenda, kontratistaren ordezkariak hasita beheraka.
 - Aurreko apartatuko pertsonen CVA, prestakuntza eta lanbide-esperientzia jasota (gehieneko luzera: orrialde bat pertsona bakoitzeko).
5. Kontratua gauzatzeko presentzia eta prestasuna. Apartatu honetan, kontratu honetarako proposatutako prestasunaren, presentziaren (ordutegia) eta ez-presentziaren (prestasuna) proposamena sartu behar da, honako kasu hauetan:
 - Matxurak agertzen direnean.
 - Ezohiko premiaren bat dagoenean eta larrialdietan.
6. Lanak egikaritzeko esleitutako baliabide materialak.
 - Lantegiak, aldagelak eta bulegoak.
 - NBEak eta babes kolektiboko ekipak.
 - Mota guztietako tresnak, ekipa elektronikoak eta neurketakoak, etab. (Banaketa eta esleipen proposamena —komunak, pertsonalak...—).
 - Ibilgailuak
 - Bitarteko osagarriak: aldamioak, garabiak, plataformak, ekipa elektrogenoak eta abar, propioak edo azpikontratatuak (azpikontratatzea aurreikusita badago, enpresa-hornitzaileekiko konpromisoa erantsi behar da).

BAZTERTZEKO HUTSEGITE TEKNIKOAK



BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

Proposamen teknikoak ez ditu berrogeita hamar (50) orrialde zenbakitu baino gehiago izango eta ezaugarri hauek beteko ditu:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde-kopurua zenbatzeko, 50 orrialde horien barruan zenbatuko dira aurkibidea eta eranskinak. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko. 50 orrialde baino gehiago aurkeztuko balira, balorazio teknikoan lehendabiziko 50 orrialdeak baino ez dira kontuan izango. Letra-mota eskatutakoa baino txikiagoa duen testu oro ez da kontuan hartuko.

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailerak edo bere ordezkariak sinatu beharko du eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskinen ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa salbu.

Eskaintza ekonomikoa hauekin osatuko da:

- a) I. eranskinaren arabera (Prezio unitarioak) eskaintako kontratuaren prezio unitarioen zerrenda.
- b) II. eranskinaren arabera (Neurketak eta aurrekontua) eskaintako kontratuaren neurketak eta aurrekontua.

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzaileraren profilean adierazitakoa
- 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (Administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak egiteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKOAK DIREN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekorekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Argibideak:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

$$P_i = 48 + \frac{(2 \times B_i - BM - B_{\max})}{(B_{\max} - BM)} \times 2$$

BALIO-IRITZIEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

- **Memoria teknikoa eta lanak egiteko metodologia-----35 puntu**
 - Egin behar diren lanen irismena----- 15 puntu
 - Lanak egikaritzeko proposatutako programazioa. -----10 puntu
 - Kontrol-sistemak-----10 puntu
- **Obran erabilgarri dauden bitartekoak-----15 puntu**
 - Kontratua exekutatzeke antolamendu-egitura eta lantaldea----- -6 puntu
 - Presentzia eta prestasuna kontratua gauzatzeko-----6 puntu
 - Lanak exekutatzeke esleitutako bitarteko materialak-----3 puntu

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarateratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarria dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzaille daudenean, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, batezbestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoa bada eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batez besteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak egin dituztenean, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, txikiena hartuko da kontuan, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka egin duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.



L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZEHAPEN ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

Instalazioen hileko erabilgarritasunak, estatistikoki neurtuta, jakinarazitako matxura-kopuruarekin batera, zehapena ekarriko du, eta ondoren deskribatzen den moduan kontabilizatuko da.

ESKURAGARRITASUNA

Kontratu honen xede diren instalazioen hileko erabilgarritasuna egiaztatu egingo da mantendu beharreko instalazio guztien laginketa estatistikoaren bidez. Laginketaren diseinua (aldizkakotasuna, tamaina, etab.) BBUPk egingo du, kontratuan zehar aldatu ahal izango da eta adjudikaziodunak inolako baldintzarik gabe onartuko du.

Erabilgarritasuna egiaztatzeko oinarritzko unitatea LOKALA/BULEGOA da. LOKAL/BULEGO bateko aire girotuaren instalazioa ez da erabilgarri egongo, kontratu honen ondorioetarako, honako kasu hauetan:

- Egiaztapenaren unean, beste edozein arrazoiengatik funtzionatzen ez duenean, dagokion behe-tentsioko banaketa-koadroaren hornidura elektrikorik eza izan ezik.

Xede den erabilgarritasuna % 99koa da. Erabilgarritasun horrek edo handiagoak eskainitako prezio izendatua kobratzea ekarriko du, hau da, % 0ko zigorra.

Xede den erabilgarritasuna ez lortzeak zehapena ekarriko du, eta % 95eko erabilgarritasunak eskainitako prezio izendatuaren kobrantza % 20 murriztea ekarriko du. % 99 eta % 95 bitarteko erabilgarritasunak eskainitako prezio izendatuaren kobrantza % 0tik % 20ra murriztea ekarriko du, interpolazio linealaren bidez kalkulatuta. % 95etik beherako prestasunek % 20ko zehapena izango dute.

MATXURA

Matxurak erabilgarritasunak eragin ditzakeen zehapenez gain zehatuko dira.

Kontratu honen ondorioetarako, LOKAL/BULEGO bateko aire girotuaren instalazioan matxura gertatu dela ulertuko da beste edozein arrazoiengatik funtzionatzen ez duenean, dagokion behe-tentsioko banaketa-koadroaren hornidura elektrikorik ez egotearen salbuespen bakarrarekin, eta sei ordu baino gutxiagoko epean konpondu ez denean (denbora adjudikazioari matxura jakinarazten zaion unetik zenbatzen hasiko da).

Matxura batek konpondu gabe jarraitzen duen egun bakoitza matxura berri gisa kontabilizatuko da. Hau da, matxura bat konpontzeko hiru egun behar badira, hiru matxura gisa zenbatuko da, zehapenen ondorioetarako.

Zehapen-eremuan:

- Jakinarazten den matxura-kopurua (edo konpondu ez direlako kontabilizatzen direnak) hilean bi edo txikiagoa bada, ez du inolako ondoriorik izango.
- Jakinarazten den matxura-kopurua (edo konpondu ez direlako kontabilizatzen direnak) hilean bi baino handiagoa bada, zehapena hileko oinarritzko prezioaren % 1 izango da, bi matxuratik gorako matxura bakoitzeko.

Zehapenak metatzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake, SPKLn ezarritako moduan.



N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lizitatzailleak arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela ziurtatzen duen egiaztageria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra
☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
☐ EZ

KONTRATUAREN IRAUNALDIAN BETETZEKO BALDINTZAK

- Industriako lurralde-ordezkaritza eskudunak emandako **Eraikinetako Instalazio Termikoak Instalatzeko eta Mantentzeko Enpresa Baimenduaren Ziurtagiriak** indarrean egon beharko du kontratuaren indarraldian.
- **ASEGURUAK**

Kontratuaren xede diren lanak gauzatzean, adjudikazioduna sortzen diren kalteen erantzule bakarra, eta bere kabuz eta arriskupean konpondu beharko ditu. Adjudikaziodunek aseguru-poliza bat eratu beharko dute, baldintza teknikoen plegu honen xede den Kontratua garatzen den bitartean pertsona, eraikin, instalazio edota ibilgailuetan (BBUPkoak edo hirugarrenenak) izandako kalteak estaltzeko.
- **KONTRATISTAREN ORDEZKARIA**

Kontratista adjudikaziodunak ordezkari bat atxikiko dio kontratuari; bera izango da kontratuaren zuzendaritzaren aurreko solaskidea eta arduradun nagusia.

BESTE BATZUK

INSTALAZIOAK BISITATZEA



BBUPren webguneko kontratatzailearen profilean, instalazioak bisitatzeko deialdi bat argitaratuko da. Eskaintzak aurkeztu nahi dituzten lizitatzailleak joan ahalko dira, eta haiek baldintza tekniko berezien pleguari buruz izan ditzaketen galderei erantzungo zaie.